

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA-AURREKONTUEN  
AURKEZPENA  
Eusko Legebiltzarra 2020-12-23**

Batzorde-buru Jna.

Batzordekideok. Egunon denoi.

Kultura, Hizkuntza-Politika, Jarduera Fisikoa eta Kirolak sailaren izenean 2021eko aurrekontu-proiektuaren aurkezpena egiteko agerraldi honetan lankide ditut gaur:

- Miren Dobaran, Hizkuntza-Politikako sailburuordea.
- Andoni Iturbe, Kultura-Sailburuordea.
- Jon Redondo, Jarduera Fisikoa eta Kirola Zuzendaria.
- Irene Larraza, Etxepare Euskal Institutuko Zuzendaria
- Leire Corrales, Saileko Zerbitzu-Zuzendaria

*Aitortu behar dut, Legealdiaren hasiera hau zinez ari dela izaten berezia, gizartea eta mundu osoa zeharkatzen ari den aurrekaririk gabeko egoera pentsaezin baten erdian harrapatu baigaitu.*

*Kultura, Hizkuntza Politika eta Kirol-jarduerak denak eragin ditu.*

*Legealdi berri bat abiatzen ari gara, baina izurriaren itzala ez dugu gainditu, eta horren baldintzapean jarraitzen dugu.*

*Datozen hilabeteetara begira jarrita ere ziurgabetasuna da nagusi.*

Esan berri ditudan hitz hauek Legebiltzar honetan bertan, legealdirako asmoen berri emateko agerraldi-sarrerakoan erabili nituen.

Orain, 2021erako aurrekontuak aurkezteko unea etorrita, aitortu behar dut ez gaudela orduko larritasun-egoera edo maila berdinean, baina, oraindik ere, hor esaten nuen bezala, “izurriaren itzala ez dugu gainditu”.

Eta datozen aste eta hilabeteetarako ere ez dago gauza ziurrik.

Gauza ziur bakarra da, harik eta COVID gaixotasunaren aurkako immunitate zabal eta eraginkor bat lortu arte, denbora batez, gaixotasunarekin tentsioan bizi beharko dugula, kutsatzeak ekiditeko neurriak ezarri eta bete beharko ditugula, eta oreka bat lortu ezean, gure bizimodua baldintzatuta ikusiko dugula.

Gure sailaren aroko inguruko albisteek diotenez, Berlingo zinemaldia, otsailean behar zuena, datarik gabe atzeratu da.

Paris, Berlin eta New Yorkeko opera jaialdiak bertan behera geratu dira oraingoz.

Jendetzak debekatuta daude Europa osoan.

Kirol jarduerak mugatuta daude, eta kirol ikuskizunik gehienak ikuslerik gabe egiten dira.

Kale giroko jarduerak, asko eta asko kaleko kulturari edo kirolari lotutakoak, debekatuta daude.

Hau da gaur egoera, eta hala izango da aldiz batez.

Gure sailaren aurrekontuen lerro eta arlo nagusiei banan bana erreparatuz gero erraz nabarmentzen dira Covid 19 pandemiaren eraginez martxotik ekainera bizi izan genuen erabateko itxialdiak ekarri zituen hainbat ondorio:

- Museo eta liburutegiak, itxita
- Orkestrak jo ezinik
- Jaialdi asko bertan behera edo modu mugatuan egin behar izan ziren
- Aurrez aurreko jarduera eskatzen duten arte eszenikoak, antzerkia, musikarien emanaldiak, kaleko ikuskizunak, egin ezinik geratu ziren
- Euskaltegietan aurrez aurreko jardunak bertan behera geratu behar izan duten
- Hedabide askoren finantzazio pribatua eta zabalkunde fisikoa mugatuta geratu zen

- Kirol instalazioak itxita, kirol lehiaketak bertan behera geratu ziren, eta zenbait astez jarduera fisikoa bera ere debekatuta egon zen

Itxialdia amaituta, jarduna berreskuratzeko ahalegina egin da erakundeen aldetik, sektore ezberdinetako eragileekin batera.

Baina egoera ez da oraindik lehengora etorri.

Itxialdi egoerak, eta ondorengo mugek, eragin zuzena izan dute izaera publikoa duten erakunde, elkarte eta funtzionamendu aurrekontuetan: jarduera asko mugatu egin behar izan dira, aurrekontuak orekatu eta gauza asko egiteari utzi.

Eragina gogorragoa izan da izaera pribatua dutenen kasu askotan, jardunik ezari sarri askotan dirusarreraren gutxitzea, edo laguntzetara iristeko zailtasuna edo ezintasuna gehitu zaielako.

Legebiltzar honetan hitz eman genuen sorkuntzari eta ekoizpenari zuzendutako 2020ko aurrekontuek ez zutela jaitsierarik izango eta horrela gertatu da.

Aurrekontutan jasota zeuden diru-laguntza zuzen eta deialdi guztiak mantendu ditugu, eta hartzaileek jarduera betetzea ezinezkoa izan denean, malgutasunez jokatu dugu, eta bestelako laguntzetara bideratu ditugu baliabide soberakinak.

2021garren urtea ziurtasunik gabe dator.

Hirugarren uhin aldiaren inguruko albisteek, eta birusaren mutazioari lotutakoek egonezina eta ziurgabetasuna areagotu egin dute azken egun hauetan.

Datozen hilabeteetarako bi itsasargi dauzkagu:

Egoera orokorrari dagokionez, COVIDaren aurkako txertoak;

eta gure sailari dagozkion jardunei dagokienez, muga eta baldintza guztiak beteta, gure jarduerak modu seguru eta orekatu batean bete ahal izateko ardura.

Eta hori guztiarekin batera, itzaropena, momenturen batean gaindituko dugula gaur egungo egoera eta datozen urteetarako gure gizartea sendotu eta erronka berriei aurre egiteko moduan prestatzeko ahalegina.

Hauek dira beraz, Kultura, Hizkuntza Politika eta Kirol eta Jarduera Fisikorako prestatu ditugun aurrekontuen helburu nagusiak:

- Lehenik, CoVIDek sortutako kalteei aurre egiteko baliabide ea neurriak
- Bigarrenik, ohiko jarduerak bermatzeko baliabideak
- Eta hirugarrenik, aurrera so egin eta begirada luzez gure herrian Kulturak, Hizkuntza Politikak eta Kirol eta Jarduera Fisikoak izan behar duten etorkizuna prestatzeko habe sendoak.

Datozen hilabeteetarako gure Sailaren aurrekontuetatik COVID19ari aurre egiteko diru-poltsa berezi bat sortu dugu, 3,1 MM €-takoa.

Poltsa honen helburua COVID19aren inguruan sortu diren eta sor litezkeen zailtasunei aurre egiteko neurri eta laguntza bereziak bideratzeko dira, Kultura eta Kirolaren arloetan.

Gaur aurkezten dugun aurrekontu-proiektuaren atal nagusietara etorrita, 2021ean 289.870.000 euroko aurrekontua izango du gure Sailak.

laz baino 11.622.400 gehiago. %ko 4.2ko igoera.

Ziurtasuna eta egonkortasuna emango diguten aurrekontuak dira. Ez dago atzerapausorik.

2021erako dauzkagun eginkizun eta erronkei baldintza egokitan aurre egiteko aurrekontu zabala eta indartsua daukagu.

Euskararen eta euskal kulturaren sustapena zeharkako bost ardatz nagusiren inguruan garatu ahal izango dugu:

- Agertu berri dizuedan bezala, COVID19aren ondorioei aurre egitea.
- Euskalgintzaren eta kulturgintzaren ezagutzan eta gestioan sakontzeko ikerketan lanak eta berrikuntza-planak garatzea.
- Kulturgintzari eta euskalgintzari ere sakon eragiten dien eraldaketa digitalerako urrats irmoak ematen hastea.
- Kulturgintzako eta euskalgintzako erakundeekiko eta eragileekiko lankidetzaren sendotzea.
- Eta gizon eta emakumeen berdintasunean sakontzeko ekimenei jarraikortasuna ematea.

Sail guztiaren oinarritzko betekizuna da genero berdintasunaren alde modu eraginkorrean lan egitea, horretarako aukera ematen duten jardura eta aurrekontu-atal guztietatik.

Diru-laguntzetan, kontratuetan, hitzarmenetan, promozio kanpainetan, berdintasunaren aldeko klausulak eta ekimenak konstante bat dira.

Hainbat arlotan, ordea, modu ageriagoan azaltzen da berdintasun-politikak sustatzeko borondate orokor hori:

Adibidez, kulturaren sektorean berdintasunaren inguruko hausnarketa-txostenak lantzen jarraituko dugu, musikan, arte eszenikoetan eta liburugintzan ekintza bereziak diseinatuko dira eta TABAKALERaren bitartez, emakume zinegileei zuzendutako NOKA programarekin jarraituko dugu.

Berdin, museoei bideratutako diru-laguntzetan emakumeen parte hartzea eta presentzia areagotzen joango gara eta orohar Kultura Ondarearekin zerikusia duten deialdi, ikerketa-lan eta bestelako ekimenetan.

Berdintasuna lortzera espreski bideratutako ekimenen euskarri, 125.000 € daude aurreikusita Kulturaren [75.000] eta Ondarean [50.000] 2021erako.

Gauza bera esan dezakegu Hizkuntza Politikako ardurapekoak diren arloei dagokionean ere, berdintasun-politikak aurrekontu guztia hartzen dute eta, gainera, badira hainbat berdintasun ekimen propio babesteko diru-kopuruak ere.

2021erako 195.000 € aurreikusi dituzte euskararen ezagutzari eta erabilerari bideratutako ekimenetan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko borondatea ekintza zehatzetan ager dadin.

Jarduera Fisikoa eta Kirola zuzendaritzak ere, 150.000 € bideratu ditu berdintasun plana sustatzera, aurtengo diru-kopurua bikoiztuta.

Gure aurrekontuaren argazki orokorrago eta osatuago bat izan dezazuen, zerbitzuen araberrako gainbegiratua emango diegu.

Lehenik eta behin, Sailburu honen ardurape zuzenean,

- 149.144.342 €, Nekane Zeberioaren ardurapeko Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaritzan daude.
- Atal honetan sartzen da Euskal Irrati Telebistaren aurrekontua. Aldeko 13 botorekin, kontrako 4ekin eta 3 abstentziorekin, joan zen abenduaren 14ean EITBko administrarritza-kontseiluak ontzat eman zuen aurrekontu da. Ustiapen gastuetarako, zehazki, 140 milioi € izango ditu EITBk datorren urtean. Aurten baino %ko 4,94 gehiago.

Dakizenez, orain arte EITB osatzen zuten hiru sozietate anonimoak bakarrean bildu dira: EITB Media SAU, hori da izen-ezaugarri berria.

Hedabideen merkatuak, sakoneko eraldaketa digitalak eta hedabideen kontsumoak etorkizunean izango dituen erronkei aurre egiteko, sozietate-egituraren eta administrazio-ereduaren arrazionalizazioa ditu helburu aldaketak.

Datorren urteko eginkizunetako bat izango da Eusko Jaurlaritzaren eta EITB Media SAU-ren artean 2021-2024 kontratu-programa berria landu eta sinatzea, aurrekoa, 2016-2019 epealdikoa, luzatua baitago 2019ko abenduaz geroztik.

- Sailaren aurrekontuetara itzuliz, 4.030.623 €, Leire Corrales-en ardurapeko Zerbitzu Zuzendaritzak kudeatuko ditu. Aurten baino 835.451 € gehiago.
- Eta 10.986.117 €, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaritzak ardurapekoak izango dira. Aurten baino ia 2.000.000 € gehiago. Zuzendaria, Jon Redondo da.

Andoni Iturbek bere gain hartu berri duen Kultura sailburuordetzaren aurrekontua 2021ean 59.821.343 €koa izango da, honela banatuta:

- 35.225.113 €, Kultura Sustatzeko zuzendaritzan. %ko 4,8ko igoerarekin Aitziber Atorrasagasti da zuzendaria.
- 24.596.230 €, Kultura Ondarearen Zuzendaritzan. Mikel Aizpururen ardurapeko zuzendaritza. Aurten Guggenheim Museoari atzeratutako diru-ekarpen bat egiteko erabili ditugun 1.915.000 €ak salbuetsita, 720.000 € gehiagoko aurrekontua izango du 2020arekin alderatuta.
- Irene Larrazek zuzentzen duen Etxepare Euskal Institutuak, berriz, 3.300.000 aurrekontua izango du 2021ean, aurtengoan baino 240.000 € gehiago.

Miren Dobaran, Hizkuntza Politikako sailburuordearen eginkizunetara bideratuko dira datorren urtean 64.929.095 €, aurten baino %ko 7 gehiago. Eta eginkizunez-eginkizun, honela banatuak daude:

- 43.147.736 €. Hizkuntza-Politikarako sailburuordetzak berak kudeatuko ditu.
- Euskara Sustatzeko zuzendaritzak 15.278.767 €, Estibalitz Alkortaren ardurapean.
- Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak 5.043.567 €, Josune Zabalaren ardurapean.
- Eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzak 1.659.025 €. Joseba Lozano da zuzendaria.

Sailordetza bakoitzaren 2021eko helburu, ekimen, bitarteko eta xedeak astiroago gainbegiratuta, lehenbiziko Kulturaren sustapenari eta ondarearen kudeaketari dagozkion alderdiak aipatu behar ditut.

Bost erronka eta lan-ildo nagusi dira 2021eko aurrekontu-proiektuaren ardatz eta euskarri.

- Kultur **sortzaileei eta ekoizleak** laguntzea.
- Euskadin **estrategikoak diren kultur erakundeak indartzea** eta sendotzea.
- **Kulturaren eta ondarearen garapen digitalari** errotik ekitea.
- **Ondare industrialia**, garapen-aukera modura.
- **Eta Kultura eta Sormen Industrien** proiektua sendotzea.

Esan gabe doa, gure sailaren ardurapean egingarri eta eragingarri dena, ezin litekeela ulertu beste hainbat erakunde, elkarte eta eragileren elkarlanik eta koordinaziorik gabe. Eta, behin berritan, horretan ahaleginduko gara, legealdi osoko estrategian eta 2021an eskuartean izango ditugu eginkizunetan.

Orotara, ia 60 milioi €ko aurrekontua izango du. Aurreikusi ditugun igoerak **sorkuntza arloko eta ekoizpeneko** profesionalei zuzenduta daude gehienbat. Sortzaileei babes ematea bereziki zainduko da datorren urtean.

Bestalde, Euskal kultura digitala indartzeko programek garrantzi berezia hartu dute, EUSKARIANA eta e-liburutegia zerbitzu-proiektuetan eta museoan arloan batipat.

Datorren urterako aurrekontu-proiektu honetan, Euskal Kulturari eusten dioten **azpiegiturei eta gertakizun nagusien aurrekontuek** 2020ko parametroetan jarraitzen dute.

**Kultur eta Sormen Industrien** inguruko politikak, berriz, sendotu egingo dira.

Aurrekontuetan **berrantolaketa** lana ere egin dugu atal batzuetan. Hainbat partidatan jaitsierak antzemango dituzue, baina, ez dago halakorik. Adibidez, Euskal Filmategia, Eresbil, Euskal Herriko Adiskideen Elkarte eta Eusko ikaskuntza, Kultura Ondarearen Zuzendaritzara pasa dira. Entzun-ikusikoen esparrua, berriz, IBAIA eta EUSKAL PRODUKTOREEN ELKARTEA, Zine-Euskadira.



Sorkuntzari eta ekoizpenari dagokionean, kulturaren lan profesionala arautzea, duintzea eta ageriko egitearekin batera, Sortzailearen Estatutuaz eta lan-baldintzen protokoloez arduratzeaz bat, 2021ean, sortzaileek eta ekoizleek lana izatea, lan egiteko aukerak izatea bermatu beharko dugu, ahal den neurrian.

Horregatik sendotu ditugu dirutan jendaurreko emanaldi eta erakustaldiak sustatzeko programak. Ikusi dugu badela publiko leial bat, egoera konplikatuotan ere, euskal sortzaileen proposamenei gogoz erantzun diona. Hari hori eten ez dadin, zuzeneko arteen jarduna sustatuko dugu bereziki aurrekontuokin. Era berean zine-aretoei ere dirulaguntza berezia emango zaie eta **ZINE EUSKADI** indartu eta sendotu egingo dugu.

Asmo hauek dirutan adierazita, hauek dira 2021eko aurrekontu-proiektutik nabarmendu behar ditugun kopuruak:

Musikaren mundurako, aurten baino 480.000 € gehiago jarri ditugu. 375.000 deialditan eta aurten baino 105.000 € gehiago Euskadiko Orkestra Sinfonikoarentzat .

Guztira, 1.112.000 € musikarako deialdietan eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak 8.300.000 € izango ditu datorren urte honetan.

Euskal Herriko Gazte Orkestrak, bere aldetik, 290.000 €ko aurrekontua izango du 2021ean, interprete gazte berrien talentu musikala osatzen eta garatzen jarraitzeko.

ARTE ESZENIKOEN deialdietan 2.683.000 € esleituko ditugu. Aurten baino 207.000 € gehiago.

Ekimen zehatzak aipatuz, adibidez kale antzerkirako 235.000€ bideratuko ditugu, iaz baino 75.000€ gehiago. Dantzara ere, 225.000€ joango dira, iaz baino 75.000€ gehiago.

Guztira, beraz, kale antzerkirako eta dantzarako 150.000€ gehiago jarriko ditugu.

Eta ZINE-EUSKADI-k orotara 1.325.000 €, aurten baino 230.000 € gehiago.

Izendatutako diru laguntzetan zine-aretoek 70.000 € jasoko dituzte. Aurten baino 50.000 gehiago.

Kulturaren merkatua ere indartu nahi dugu eta horretarako politika bereziak jarriko ditugu martxan Euskadin eta kanpoan komertzializazio-prozesuei laguntzeko, eta, noski, egunetik egunera garrantzia eta pisu handiagoa hartzen ari den merkatu digitalari begira ere bai.

Kultura produktuen promoziora eta komertzializaziora bideratutako deialdi berria egingo dugu 2021ean: 510.000 € izango da.

**EHMBE**ren, Euskadiko musika profesionalen plataformaren kontsolidazio prozesua ere indartu eta burutu nahi genuke. 86.000 € jarri ditugu horretarako.

Deialdi eta laguntza hauen inguruan guretzat esanahi eta lehentasun handikoa den beste helburu bat: **ORDAINKETA SISTEMA ARINTZEA**.

Aurrerantzean, deialdietara aurkezten diren egitasmoek, onartuak izan ahala, diru-laguntzaren %75a berehala jasoko dute eta gainerako %25a bakarrik izango da, bukaeran, azkeneko justifikazioekin ordainduko zaiena.

Enpresa-antolakuntzan, ekoizpen-prozesuetan, produktuen zabalkunde eta salmenta-moduetan, bezeroaren gogobetetasuna lortzeko eta asetzeko estrategietan, horretan guztian, gero eta eragin nabarmenagoa du digitalizazioak.

Kulturgintzari ere, eta euskalgintzari orobat, iritsi zaio estrategia digitalak etengabe sakontzen, ontzen eta zorrozten jarduteko garaia.

Datuetarako irisbideak lantzen eta kultur eduki digitalen eskaintza aberasten urteak daramatzagu eta 2020an, zehazki, 300.000 € inbertitu ditugu Ondare Zuzendaritzaren web orriak, EMSIME, museoen ondare digitalaren agertokia, milaka erabiltzaile euskaldun dituen e-Liburutegia eta Agiritegien zerbitzu irekia eguneratzen.

Bide horretan sakonduko dugu 2021ean eta urtez-urte jarraitu beharko dugu gure jarduera eta eskaintza digitalak zabaltzen eta hobetzen.

2021eko aurrekontu-proiektutik berezienak nabarmentze aldera:

**EUSKARIANA PROIEKTUA**, Euskal kulturaren atari digital nagusia abian jarriko dugu, elkarlanean, zerbitzu eta erakundeen edukiak bilduz, 551.000 €ko aurrekontuarekin.

**EUSKADIKO MUSEOEN SAREA**. Ekimen honek bi alderdi izango ditu. Batetik, Lurralderako estrategikoak diren museoetara indartzen eta sendotzen lagunduko diegu. Horretara bideratuko ditugu 10.000.000 €.

Era berean, museoetara deialdian eta formakuntzan eraldaketa digitala suspertu eta indartuko dugu. Horretarako, 2021ean 810.000 € aurreikusitako ditugu.

**EUSKADIKO IRAKAURKETA PUBLIKOAREN SAREAN**, Ondarenetan eta Liburukliketan azpiegitura hobetzen jarraituko dugu. 580.000 izendatu ditugu helburu horrekin.

**LIBURU FUNTSAK** hornitu eta aberasteko 2021ean 1.100.000 € jarriko ditugu, aurreko baino 300.000 € gehiago. Helburua, beti ere, Liburugintzaren sektoreari eta irakurzaletasunari bultzada berezia ematea.

**E-LIBURUTEGIA** indartzeko estrategian 200.000 € jarriko ditugu, besteak beste, **AUDIOLIBURUEN PROGRAMA** martxan jartzeko.

**KSI** akronimoa erabiltzen dugu **KULTURA SORKUNTZAREN INDUSTRIA**-ra bideratzen ari garen politikak aipatzeko. Politika horiek sendotzea da 2021 daukagun lehentasunetako bat.

725.000 € gehiago erabiliko eta inbertituko ditugu 2021ean **KSI**ren inguruko politikak kentsolidatzeko. Guztira 1,1 milioi euro bideratuko dira **KSI**-ra.

Berrikuntza nagusia BDCC, Basque District of Culture and Creativity, sormenaren eta kulturaren barrutia sortzea izango da eta enpresei zerbitzu nagusiak eskaintzen hasia.

PVCT-n baitan jarraituko dugu, "Euskadi Sortzailea" izenburupean, eta beraz, Euskadiren egitasmo estrategikoetan.

**EUSKAL KULTURAREN BEHATOKIA**, behin berritan, eta are eta gehiago garai konplexu honetan, kulturgintzaren egoeraren jarraipena egiteko tresna baliagarria da eta 2021an ekimen berezi bat garatuko du **ORKESTRA**, Deustuko Unibertsitateko Lehiakortasunaren Institutuarekin lankidetzan.

Hizkuntza-politikako sailburuordetzak XII. Legealdiko koalizio-gobernuaren Gobernu-programaren seigarren helburuan euskararen erabilera aurreratzeko xedea finkatzen du.

Euskararen Agenda Estrategikoa 2021-2024 Gobernu honek legealdi honetan indarrean dituen 16 Plan Estrategikoetako bat da.

Ildo horretan sail honen hizkuntza politikak bost lan-ildo eta konpromiso nagusi hartzen ditu bere gain 2020-2024 legealdirako eta, noski, baita aurrekontu-proiektu honi dagokion urterako, 2021erako.

Euskararen ezagutza areagotzea, erabilera sustatzea, hori lortzeko gizartea aktibatzea, ingurune digitalean euskararen presentzia eta erabilera zabaltzea eta, lorpen horietarako ezinbesteko lanabes, etengabeko ikerketa eta ebaluaketa prozesuak garatzea.

Eginkizun horien harian, Kultura eta Hizkuntza Politika sailetik etengabe dihardugu geure ilusio eta konpromezutik, gainerako Sailak, gainerako erakunde eta elkarteregileak, eta gizartea bera, konpromiso eta ilusio horretara erakartzeko ahaleginean.

Ezagutzari dagokionean, 2021eko aurrekontu proiektu honetan, ezagutza areagotzeko ahaleginean, helduen euskalduntzean egin nahi dugu apustu nagusia.

Zentzu horretan, aurten Helduen Alfabetatzerako eta Berreuskalduntzerako Erakundeak, HABEK, 42.400.000 €ko aurrekontua izango du. %8,41ko igoera. Aurten baino 3.290.000 € gehiago.

800.000 Euskararen Gaitasun Agiria Hezkuntza Sailetik gurera eskualdatze prozesua osatzera bideratuak eta 2.264.000 € euskaltegiak laguntzeko eta gero eta erabiltzaile

gehiago dituzten – eta pandemia garai hauetan areagotu diren - *on line* ikastaroen zerbitzuak sendotzeko. Atzera pausorik gabeko bide honek, plataforma birtualen erabilerari esker, ikastaro erdi-presentzialen aukera ematen die helduei eta kontziliazio-premietara hobeto egokitzen den eskaintza bat. Euskaltegiekin elkarlan estuan ari gara bide hau lantzen eta sustatzen.

Bestalde, aurreko legealdian zehar B2 mailara arteko euskara-ikastaroen matrikulen doakotasuna bultzatu genuen bezala, beste bide bat ireki nahi dugu 2021an eta legealdi osoan: 16 eta 30 urte bitartekoentzat, C1era arteko matrikulen doakotasuna.

Guztira, matrikulen doakotasuna bermatzeko, 3.100.000 bideratuko ditu HABEK 2021ean.

Bestalde, iaz baino 1.909.000 € gehiago jarri ditugu euskaltegi pribatuen jarduera eta irakasleen lan-baldintzak hobetzen joateko. Helburua da, talde-orduko dirulaguntza-moduluan %4ko igoera egitea. Igoera hau, aurreko legealdi hasieratik urtez-urte izan dugun joeraren jarraipena da.

Eta euskaltegien egoerari buruzko azterlanak ere egiten ari gara, eta datorren urtean amaituko ditugu, etorkizuneko ereduak finkatzeko lagungarri izango zaizkigulako.

Hizkuntza-Politikako sailburuordetzan, ezagutzatik erabilerarako jauzia ahalbidetzea da gure bigarren lehentasuna.

Hainbat esparru identifikatu ditugu 2021erako, estrategikoak izango direnak:

Batetik, alor sozioekonomikoan eskuhartzea.

2019ko abenduan aurkeztu genuen Arlo Sozioekonomikorako Euskararen Plana 2020-2023. Gizarte-eragile, enpresa, aholkularitza-enpresa, sindikatu eta gainerako erakundeekin egindako prozesu zabalaren emaitza izan zen Plana. Ekimen interesgarriak bideratu ditugu aurten lurraldez-lurralde eta sektore ezberdinetan, eta hala jarraituko dugu entitate publiko eta pribaturekin, euskalgintza- eta aholkularitza- enpresekin lankidetzan, jarduera berriak jorratzen.

Marko honetan, gure lanabes garrantzitsuak izango dira, planari zuzenean lotutako aurrekontua [400.000 €], LANHITZ deialdia [1.879.000 €], eta BIKAIN ziurtagiria [220.000 €].

Horrez gain, gaur aurkezten dizuegun aurrekontu-proiektu honekin Sektore Publikoaren normalizazioan sakontzen jarraituko dugu. Martxan dauzkagun hainbat ekimenen artean, herri-erakundeen arteko komunikazioetan euskararen erabilera indartzeko 60.000 € izendatu ditugu. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioan hobekuntzak eragingo ditugu, IVAPekin lankidetzan euskara teknikarien etengabeko formazioa bultzatuko dugu eta **UEMA**-ri eta **EUDEL**-i dirulaguntza emango diegu euskararen erabilera planak garatzeaz gain, eragin linguistikoaren txostenetan sakondu dezaten. 128.000 € izango dituzte horretarako. Gainera, **ELEBIDE** indartzen segituko dugu, sare-sozialetara bideratutako 35.000 €ko publizitate-kanpaina baten bitartez.

Gure hizkuntza-politikaren helburu nagusiak dira baita ere euskararen erabilera areagotzea eta gizarte aktibazioa sustatzea.

Konpromiso honetan, 2021an **EUSKALGINTZA** deialdia berrantolatuko dugu. Gizarte-esparruetan eta jarduera-proposamenetan gertatu diren aldaketak kontuan hartuko dituen programa egin nahi dugu. Deialdiaren kopurua, guztira 1.300.000 €koa izango da.

Bestalde, 2021, oraintsu amaitu dugun **EUSKARALDIA**ren balorazio urtea izango da. Batetik, gizarte osoan izan duen inpaktua neurtuko dugu. Bestetik, ekimenaren ezaugarriei lotutako emaitza kuantitatibo zein kualitatiboak bilduko ditugu.

Bide horretan, **EUSKARALDIA** sustatzeko, Topagunearekin daukagun hitzarmena, urterokoa izan ordez, urte bikoia izango da datorren urtetik aurrera. Urteko 330.000 €ko hitzarmena sinatuko dugu.

**EUSKARABENTURA** da gizarte aktibaziorako beste proiektu azpimarragarri bat ere, ehundaka gazte, euskararen eusle aktibo bilakatzea du helburu proiektuak. 60.000 € bideratu ditugu horretara, ikerketa soziolinguistiko bat barne.

Kale hizkera edota hizkera kolokiala lantzeko kirolarena da euskararen erabilera sustatzeko landu beharreko eremu estrategikoetako bat. 160.000 € bideratuko ditugu kirolean euskara sustatzeko estrategia eta ekintza plana diseinatzeko, Kiroletako zuzendaritzaren eta Aldundien lankidetzarekin.

**ARNASGUNEAK** dira gizarte aktibazioaren eremuan 2020an jorratuko dugun hirugarren ildo, UEMArekin adostutako lankidetzan oinarrituta.

Hala, herri euskaldunetako hiztunak ahalduntzeko eta gazteekin hainbat ekimen lantzeko bide-orria jarraituko dugu datozen hilabeteotan.

Hizkuntza-politiketan, 2021eko laugarren lehentasuna da ingurune digitalean euskararen presentzia eta erabilera areagotzea eta sendotzea. Horretarako gazteentzako euskarazko eduki erakargarriak eskaini behar dira. Hala ikusten du **EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAN** Ingurune Digitala Sustatzeko batzordeak ere.

Horretarako **GAME ERAUNTSIA** elkartearekin hasitako elkarlanari jarraipena emango diogu [35.000 €], **Wikilari** elkartearekin dugun elkarlana ere sendotuko dugu [200.000 €] eta Euskalgintzaren dirulaguntza-deialdian, 300.000 € jarri ditugu ingurune digitalean euskara sustatzeko.

2021-an gainera, Hizkuntza Teknologia 2021-2024 Plana landuko dugu, lehentasunak, proiektuak, egitasmoak eta adierazleak finkatzeko. Plan horrek jasoko dituen egitasmo batzuk gauzatzen joateko, 495.000 € aurreikusi ditugu.

Etengabeko ebaluaketa eta ikerketa dira aipatu beharreko beste bi oinarri, Hizkuntza Politikaz ari garenean. Izan ere, ikerketa kuantitatiboak eta kualitatiboak ezinbesteko tresna dira egiten dugunaren eraginkortasuna neurtzeko eta neurri eraginkorrak hartzeko.

Ikerketan, unibertsitateekin eta soziolinguistika klusterrarekin bideratutako lanak sakonduko ditugu. Besteak beste, Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoa, Euskararen Adierazle Sistema, euskararen inguru digitalak, euskararen pertzepzio soziala...Guztira, 566.400 € dira eginkizun horietara zuzendutako diruak.

Euskararen Aholku Batzorderako 150.000 euro aurreikusi ditugu, batez ere, 2012an onartu zen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana ebaluatu eta etorkizuneko Plan berrirako aurre-lanak egiteko.

Euskarazko hedabideen sektorera zuzendutako diru laguntzen eredu berria jarri genuen martxan 2019an eta eredu horretan gaztelaniazko hedabideek euskara gehiago erabiltzea ere sustatu zen. Ereduari bultzada ematen dio 2021eko aurrekontuak: ia zortzi milioi euro [7.957.987€] bideratuko ditugu horretara..

Bide honetan aurrera egiteko funtsezkoa da euskarazko hedabideen sektorearen beharrian eta erronken ezagutzan sakontzea. Horretarako sortu genuen 2020ko uztailean, eta lanean jarraituko du 2021ean, Euskal Hedabideen Mahaia.

**ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA**-ren 2021eko aurrekontuaz hitzegin behar dut orain.

3.300.000 €ko aurrekontua izango du. Aurten baino 240.000 € gehiago, %ko 7,27ko igoerarekin.

Igoera horren zergatiaz eta norakoaz COVID19ak gure aurrekontuetan duen eraginez hitz egiterakoan mintzatu naiz.

Hala ere, gogoratu nahi ditut Institutuaren 2021erako lehentasun nagusiak:

- Zabalkunde Digitalerako zeharkako egitasmoaren diseinua.
- Euskararen eta euskal kulturaren irakakaskuntza munduan, Euskal Etxeetan zein unibertsitateetan.
- Berdintasun Planaren txertaketa lan-ildo guztietan, diru-laguntza, deialdi eta kultura-egitasmoetan.
- Kulturaren sektoreekin elkarlanean, euskal sortzaileen mugikortasuna sustatzeko diru-laguntzen moldaketa.
- Kanpoko programazioetan Euskal Leiho berriak sortzeko egitasmoa, bertako zein kanpoko eragileekin lankidetzan.
- Euskal kultur programa berezia Quebecen.
- Euskal Literatura nazioartekotzeko lan-ildoaren berrikuspena eta indartzea.



Mundu zabaleko hainbat lekutan euskara irakasteko eta Hizkuntza bera sustatzeko ekimenetan, 1.189.650 € erabiliko ditu Etxepare Institutuak 2021.

Euskal kultura mundura zabaletzeko ekimenetan, berriz, beste 1.024.431 €.

Biak hala biak, Etxepare Euskal Institutuaren muintan txertatuak dauden oinarritzko zereginak.

Sail honetako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren oinarri-oinarritzko helburua da pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta ongizatea lortzeko jarduera fisikoa eta kirola interes publikoko gizarte-jarduera bezala hartzea eta tratatzea.

Helburu horrek bat egiten du Jaurlaritzaren Gobernu-programako ardatz eta helburuekin.

Jaurlaritzaren Gobernu-programak espreski esaten du bigarren ardatzean, pertsonen osasuna, berdintasuna, bizikidetzeta eta ongizatea, politika publikoen muinean egon behar dutela.

Eta gure sailari dagozkion eginkizunetan finkatzen ditu helburuok:

- Jarduera fisikoa eta bizitza-ohitura osasungarriak sustatzea euskal herritarren artean eta Euskadi Europako gizarterik aktiboenen artean kokatzea.
- Jarduera fisikoak eta kirolak berdintasunerako eta gizarteratzeko duten potentziala baliatzea eta euskara sustatzea. Generoaren ikuspegitik berdintasun erreala sustatzea da helburua eta berdin dibertsitate funtzionala duten pertsonei dagokionean, bai aukeren ikuspegitik eta baita hizkuntza-berdintasunari dagokionean ere.
- Euskal kirol-sistema etorkizuneko erronketara egokitzea eta horren antolakuntza hobetzea.
- Eta kirolaren potentziala ustiatzea Euskadiren nazioartekotzerako tresna gisa.

2021eko aurrekontuetan helburu horiek gauzatze aldera, besteak beste, lan-ekimen hauek bideratu nahi genituzke:

- Euskadi Europako gizarte aktiboenetako izatea lortzeko bidean MUGIMENT proiektua daukagu martxan, Osasun sailarekin lankidetzan, orientazio-zerbitzua eskaintzeko, eta udalerriekin kirol-txartel bakarraren erabilerara iristeko. 2021ean denera 480.000 € izango ditu proiektuak.
- Kirol-federazioei eta federazioen batasunari bideratutako laguntzen kopurua ere aintzat hartzekoa da, guztira 3.152.000 €. Besteak beste, kirol-praktika arautua gizarteratzen egindako lana babesten diegu eta Federazioen kudeaketaren eraginkortasuna areagotzeko eta kirolean duen eragina handitzeko bitartekoak eskaintzen dizkiegu.
- Beste jarduera arlo batean, teknologia berrien erabilera bultzatuko dugu, Kirol-Eskolaren funtzioa indartzeko eta kirol-eskaintza eta zerbitzu malgu, anitz eta aitzindariak emateko gaitzen joateko. Digitalizazioaren ikerketa, garapena eta berrikuntza proiektuak lagunduko ditu, horretarako, denetara, 215.000 € bideratuta.
- Genero berdintasunaren ikuspegitik, Berdintasun plana sustatzeko 150.000 € bideratu ditugu, 2020ko kopurua bikoiztuta.
- Berdin, kirol-esparruetako indarkeriaren aurkako programan. 2021ean 50.000 € inbertituko ditugu.
- Aipatu nahi ditut, baita ere, kirol egokituarentzat ditugun partida bereziak: 30.000 € Euskal Kirol egokituaren federazioarentzat eta 35.000 Gaituzsport fundazioarentzat.
- Jarduera fisikoa egitearen garrantzia inoiz baino ageriago geratu da une hauetan eta ideia hori gizarteratzeko 35.000 € gehitu ditugu iazko aurrekontutik.
- Legealdi honetako Gobernu-programan euskal kirola nazioartera zabaltzeko helburua ere zehatz aipatua dator. Batetik, Foru Aldundiekin eta udalekin koordinatuta Euskadira nazioarteko lehen mailako kirol-ekitaldiak erakartzeko helburua. Bestetik, “Basque Team” bultzatzea maila altuko euskal kirolaren erreferente gisa, kirolarien presentzia areagotzeko nazioarteko lehiaketetan, Joko Olinpikoetan eta Paralinpikoetan. Ildo berean, Euskal selekzioei ematen zaien babesa indartzea ere bai, Gobernua osatzen dugun bi alderdiek Eusko

Legebiltzarrean 2017ko azaroaren 22an sinatutako emendakinarekin bat eginuz. Ekimenok, zalantzarik gabe, Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzeko lanabes eta bitarteko egokiak dira. Euskadi-Basque Country markaren nazioartekotzeko estrategiaren baitan, kirol ekimenei zuzenduta 500.000 €ko laguntza bideratuko dugu.

- Aipatu behar dituk gainera:
  - Zesta-punta Jai Alai World Tour Zirkuituarentzat 65.000 €ko laguntza.
  - Beste 60.000 € Hegoaldeko eta Iparraldeko Euro Basque Rugby Challenge proiekturako.
  - Euskal Herriko Txirrindularitza Itzulia eta Klasikoaren antolaketarako 230.000 €
  - Gasteizko IRONMAN froga laguntzeko 40.000 euro.
  - Aurrekontu berrian, 501.600 € izango ditugu 2021ean, lehiaketa internazionaletan parte hartzen duten klubei laguntzeko, aurten baino 60.000 gehiago.

Eta, amaitzeko, nahita-nahiezko aipamena Basque Team Fundazioari. Goi mailako kirola sustatzen jarrai dezan 2021eko aurrekontuen proiektuan 1.370.000 € aurreikusi ditugu.